

**ARBIASKA**  
**ANGIOZARKO HERRI ESKOLAKO**  
**GURASO ELKARTEA**



**Gurasoen afizio eta ofizioak**  
**ezagutzen**

**Angiozarko Guraso Elkartea**

**2012-2013 ikasturtea**

### **Sarrera:**

Angiozarko eskola, auzo eskola txikia da. Bertan 16 haur daude 2 urtetik hasi eta 9 urte artekoak. Haur talde txikia izateak, eskolan zein horren inguruan, guraso eta irakasleen artean, sortzen diren harremanak bereziak izatea eragiten du. Eskolaren izaera berezi horrek, elkarlanean egin daitezkeen ekimenak aurrera eramateko zein guztion elkar ezagutzan sakontzeko aukerak eskaintzen ditu.

Testuinguru horretan, eskolako taldea osatzen dugun pertsonen ezagutzan sakontzeko helburuarekin interesgarria iruditu zaigu haurrak zein irakasleak gurasoen lanbideak ezagutzea, gurasoen egunerokotasuna ezagutu eta hobeto ulertzeko bide gisa. Guraso taldean dauden lanbide bitxiak aukeratu ditugu ume guztientzat erakargarri izan daitezkeen.

Bestalde, natura ingurune batean kokatzen da gure auzoa, baserriz, mendiz eta ortuz inguratua, eta erreka txiki garbi baten alboan. Ingurune horretan, umeei naturarekiko gertutasun horren jabe izatea eta naturan inguruko zaletasunak bultzatzea nahi izan dugu.

Gurasoen ezagutza beraien afizioetara gerturatuz zein natura inguruko zaletasunak lantzeko helburuarekin hil gabeko arrantza eta eskaladari buruzko ekintzak aukeratu ditugu proiektua garatzeko.

### **Proiektuaren izena:**



Eskolako haurren gurasoen afizio eta ofizioak ezagutzen.

### **Helburuak:**

- Hurrek ezagutu gurasoen afizioak eta ofizioak
- Guraso eta seme-alaben elkarrenganako ezagutza landu.
- Haur eta gurasoak hainbat jardueretan elkarrekin aritu.
- Irakasle, guraso, ikasle eta herriko familien arteko interakzioa bultzatu.
- Gurasoen jakintzak generazio berriei ezagutzera eman.
- Haurrengan naturarekin lotutako zaletasunak bultzatu.

### **Partaideak:**

- Eskolako haurrak, irakasleak, gurasoak eta auzoko herritarrak.

### **Deskribapena:**

Bi arlotako lau gai landuko ditugu:

#### **Ofizioak:**

##### 1) *Suhiltzaileak ezagutzen:*

Eskolarekin elkarlanean gauzatuko dugu. Hurrek eskolan gaia hau aitzakiatzat harturik, proiektu bat burutuko dute, eta, suhiltzailea den guraso baten lankidetzara egongo da.

Jakin badakigu, edozein gai baliagarri zaigula umeei curriculumak markatzen dituen helburu eta edukiak lantzeko. Beraz, orain honetan, gai hau erabiliko dute irakasleek lortu nahi dituzten xedeetara iristeko..Honela antolatuko dugu gaia hori posible izan dadin:

Eskolan aste beteko tartea eskainiko diote gai hau lantzeari (maiatzaren 13an hasi eta 16ra arte).

1. Proiektuaren hasiera: Maiatzaren 13an, goizean, irakasle eta ikasleek gaiaren inguruko aurrezagutzak arakatuko dituzte eta ikasleen interesa pizteko ekintzak burutuko dira. Arratsaldean, berriz, suhiltzailea den gurasoarekin izango dute saioa (saio honetara beste guraso guztiak ere gonbidatuta egongo dira), ofizioarekin lotutako materiala aurkeztuko zaie hurrei eta baita suhiltzaileen lan esparru desberdinez hitz egin.
2. Asteazken zehar ikasleek eskolan gaia jorratuko dute: gure inguruko suhiltzaile parkea non dagoen, zeintzuk diren suhiltzailearen lan arloak, zein material erabiltzen den ...
3. Proiektuari amaiera emango zaio Suhiltzaileen etxera bisita eginez apirilaren 16an, arratsaldeko 16.00etan. Bertan, suhiltzaile etxea bisitatuko dugu, kamioiak eta beraien funtzionamendua ikusiko dugu eta suhiltzaileen

zereginak aurkeztuko dizkigute. Eguraldiaren arabera, hurrekin praktika batzuk egiteko aukera izango dugu. Irteera eskolako ekintza izango da eta 15 umek eta hainbat helduk (guraso eta irakasle) parte hartuko dute.

2) **Biodantza ezagutzen:**

Biodantzaren oinarrian musika, mugimendua eta bizipenak daude. Hiru elementu horiek batzen eta integratzen ditu. Musika da haria, musikak bideratzen du biodantzako saioa. Musikak eta afektibitateak.

Biodantza monitore den guraso batek bideratuko du haur, guraso zein komunitateko beste edozein kide batera arituko diren saioa.

**Afizioak:**

1) **Eskalada:**

Eskaladan aritzen den guraso batek bideratuko du eta bi fasetan landuko da.

- a) Eskaladara gerturatzea. Eskaladan aritzen den gurasoak berak egindako bidai interesgarrien bideo emanaldia eta hitzaldia emango du.
- b) Eskalada ikastaroa: Angiozarko frontoian eskalada gun bat prestatuko dute gurasoek. Ondoren, gun horretan nagusiek zein hurrek eskalada ikastaroa egingo dute.

2) **Arrantza:**

Arrantzan aritzen den guraso batek bideratuko du eta bi fasetan landuko da.

- a) Hil gabeko arrantzara gerturatzea. Hil gabeko arrantzan aritzen den guraso batek praktika horri buruzko hitzaldia emango du.
- b) Arrantzan egiteko euli artifizialen muntaketa erakustaldia eta praktikak egiteko tailerra.

**Proiektuaren Faseak:**

Apirilean hasita, hiru astean behin arlo bati dagozkion ekintzak gauzatuko dira jarraian:

**Hasiera eguna:** Haurrak, irakasleak, gurasoak zein herritarrak elkartu eta proiektua azaldu.  
Auzo guztiari egingo zaio deialdi zabala.

**1. FASEA:** Suhiltzaileen inguruko proiektua: **maiatzak 13-16ko astea**

**2. FASEA:** Biodantzaren azalpena eta jarraian ikastaroa.

**3. FASEA:** Eskalada hitzaldia eta jarraian ikastaroa.

#### **4. FASEA:** Hil gabeko arrantzari buruzko hitzaldia eta ondoren erakustaldi eta tailerra.

Fase edo ekintza bakoitzerako arduradunak izendatuko dira.

#### **Kokagunea:**

##### **Ofizioak:**

- Suhiltzaileak ezagutzen: Eskolan egingo dira aurkezpen saio zein proiektuko tarteko fasea eta proiektuaren azken ekintza Suhiltzaileen etxean egingo da (Zubillagan).
- Biodantza ikastaroa: auzoko saloian egingo da.

##### **Afizioak:**

- Eskalada: Bideo emanaldia auzoko saloian egingo da. Eskalada ikastaroa, berriz, auzoko pilotalekuan.
- Arrantza: Auzoko ludotekan egingo da.

#### **Ondorioak:**

Behin eta proiektu guztia garatuta eta amaituta dagoela ekimenen ondorioak idatziz jasoko dira.

#### **Aurrekontua:**

Suhiltzaile, biodantza eta euli muntaia arloetako ekintzak aurrera eramateko ez da diru beharrik aurreikusten.

Eskaladako ekimena aurrera eramateko, auzoko pilotalekuan eskala gune bat egokitu beharko da. Gunea egokitzeko beharrezko materialarendako 150 €ko aurrekontua aurreikusten da.

#### **Diru iturriak:**

Ekintza guztiak doan izango dira, eta Guraso Elkarteak bilatuko du sortutako gastuei aurre egiteko baliabideak.